



ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES



SARIEN LEHIAKETAKO DEIALDIA 2020ko **doku**mentala jaialdia

ARGIA FUNDAZIOAK –gaixotasun mentaleko diagnostikoa duten pertsonen beren bizi kalitatea hobetzen laguntzen die, bai eta gizarteak kolektibo horri buruz duen irudia hobetzen lagundu ere– eta

**UPV/EHU-REN ARTE EDERREN FAKULTATEAK,
DEIALDI HAU EGITEN DUTE:**

Dokumentala film laburren jaialdiaren bost kategorietan sarituko diren pertsonen emango zaizkien garaikurrak egiteko LEHIAKETA.

Dokumentala jaialdia pertsonen arteko laguntzaren botere eraldatzailea ikus-entzunezkoen bidez azaltzeko sortu zen. Lehiatuko diren proposamenen ardatz tematikoa hauxe izango da: gizartean suerta daitezkeen eta pertsonak, kolektiboak eta udalerriak positiboki aldatzea eragin dezaketen laguntza-harremanak ikusaraztea.



Algortako Aita Trinitarioek, Bilboko Elizbarrutiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak
sustatutako fundazioa.

Trinitate kalea, 11. 48993 Algorta - Getxo, Bizkaia ☎ Tel.: 944 91 19 46 - 944 60
70 12

☎ Faxe 944 60 70 80 ☎ contacta@argiafundazioa.org ☎



OINARRIAK:

1.- Arte Ederren Fakultatean graduako eta graduondoko ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek eta ikasketak 2016a eta gero amaitu dituztenek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

2.- Parte hartzaile bakoitzak bi obra aurkeztu ahal izango ditu

gehienez. 3.- Teknika eta prozedura libreak izango dira.

4.- Alderdi hauek baloratuko dira: obrak ardatz tematikoarekin duen lotura, eta obraren sormena eta kalitate teknikoa.

5.- Proposamenak Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzan entregatu beharko dira, behar bezala identifikatuta, **2020ko martxoaren 6a** baino lehen. Proposamenarekin batera, izena emateko orria, dossier artistiko pertsonal laburra eta hamabost pieza ekoizteko aurrekontua aurkeztu beharko dira.

Hamabost piezak hiru urterako izango dira; hots, edizio bakoitzeko bost, sari hauei dagozkienak:

1. Fikziozko Film Labur Okena
2. Film Labur Dokumental Okena
3. Animaziozko Film Labur Okena
4. Gizarte-erakunde batentzako Argia Fundazioa Saria
5. Junior Saria

Zirriborroak, prototipoak edo probak ere aurkeztu ahal izango dira.

6.- Piezek edo garaikurrek sariaren identifikazio-testua izan beharko dute (grabatua, kalkografia edo beste prozedura bat), edo, bestela testua idazteko toki bat utzi beharko zaie.

Testu bakarra izango da; hauxe: **PREMIO FESTIVAL DE CORTOS DOKUMENTALA 2020 ARGIA FUNDAZIOA / *DOKUMENTALA 2020 FILM LABURREN JAIALDIAREN ETA ARGIA FUNDAZIOAREN SARIA***

7.- Aukeratzen ez diren obrak parte hartzaileen esku egongo dira epaimahaiak erabakia hartu eta hamabost eguneko epean. Epe hori igaro ondoren, Arte Ederren Fakultatea ez da horien erantzule izango.

8.- Epaimahaia Arte Ederren Fakultateko irakasleek eta Dokumentala jaialdiaren antolakuntzako kideek osatuko dute.

9.- Epaimahaiak, aurrez aurkeztutako obrak aukeratu ondoren, aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere bost eguneko epean hartuko du erabakia.

10.- 2.000 € ezartzen dira ordainsarietarako, piezak ekoizteko aurrekontuaz gain; hots, gehienez ere 1.000 € (justifikatuta). HIRU EDIZIOTARAKO/URTETARAKO piezak egin beharko dira; alegia, EDIZIO BAKOITZEKO bost.

Aukeratutako obra egingo duenak ekoiztiko ditu piezak. Fakultateko instalazioetan egin ahal izango ditu, irakasleen laguntzaz.

11.- Saria efektiboa izango da pieza dekanordetzan entregatu ondoren.

12.- Aukeratutako obra Argia Fundazioaren esku geratuko da, eta horrek izango ditu erreproduzitzeko eskubideak, Dokumentala jaialdiaren komunikazioa eta hedapena egite aldera.

13.- Lehiaketan parte hartzeak deialdiaren oinarriak eta ebazpena ezagutzen eta onartzen direla esan nahi du.